


PDF erabilerrazak sortzeko jarraibideak



Gure webgunera igotzen ditugun PDFak erabilerrazak izan daitezten, etiketa egokiak jarri behar dizkiegu. Etiketa horiei esker, laguntza-teknologiek errazago dute irakurketa-ordena logikoa jarraitzea eta artxiboan nabigatzea. Gainera, edukiaren errefluxua ahalbidetzen dute tipografia handiko pantailak, PDA eta telefono mugikorrak erabiltzen direnean (edukia automatikoki moldatzen da darabilgun gailuaren pantailaren zabalerara).

Nola funtzionatzen dute PDF etiketek?

Etiketek informazio-geruza bat gehitzen diote PDF dokumentu bati, eta haren bidez, artxibo batean zer objektu mota sartu diren azaltzen da: esate baterako, goiburuak, paragrafoak, irudiak eta taulak. Artxibo bat PDF moduan gordetzen denean, Officek identifikatu eta etiketatu egiten du. Horrela, laguntza-teknologiek (pantaila-irakurgailu eta lupak, esaterako) etiketak eskuratu, eta desgaitasunak dituzten erabiltzaileei informazioa aurkezteko erabil ditzakete.

Zer egin behar dugu dokumentu bat PDF gisa gordetzen dugunean?

Word, Excel edo Powerpoint formatuko dokumentu bat sortu ondoren, urrats hauek eman behar ditugu artxiboa etiketatutako PDF gisa gordetzeko.


1. Egiaztatu erabilerraztasuna taulak, irudiak, hiperestekak eta abar egokitzeke:

- Dokumentua zabalik daukazula, egin klik *Fitxategia* erlaitzean (pantailaren goiko aldean, ezkerretara).


Ezkerreko menuan *Informazioa* izeneko aukera bat agertuko zaizu. Eta horri sakatuta, dokumentuari buruzko informazioa agertuko zaizu pantailan.

- Egin klik *Begiratu arazorik badagoen* koadrotxoan.


- Beste koadro bat zabalduko zaizu, eta bertan, sakatu bigarren aukera, *Egiaztatu erabilerraztasuna*.




- Pantailaren eskuineko aldean, dokumentuak izan ditzakeen arazoak zerrendatuko dira: erroreak, abisuak, iradokizunak eta arazoen inguruko informazio gehigarria.




2. Egiaztatzen gabiltzan dokumentuan arazorik balego, horiek konpondu: arazoen gaineko informazio gehigarrian azaltzen da nola.




3. Arazoak konponduta dituzunean, pantailan hau agertuko zaizu:




4. Fitxategia erlaitzean, sakatu *Gorde honela* aukera:




5. Aukeratu PDF formatua *Gorde honela* eremua zabaltzean agertzen diren aukeren artean.



6. Egin klik *Aukerak...*en.



7. Ziurtatu *Erabilerraztasunerako dokumentuaren egitura-etiketak* laukitxoa eta *ISO 19005-1ekin bateragarria (PDF/A)* aktibatuta daudela. Egin klik *Ados* botoian.



Jarraibide horiek guztiak segituz gero, gure webgunera igotzen dugun informazioa denei heltzea ahalbidetuko dugu.